

1269/2021 EBAZPENA, URRIAREN 4KOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ BALIOGABETZEN DIREN 2021EKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDETAN EGINDAKO IZEN-EMATEAK, ARAZO TEKNIKOAK TARTEKO.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 1eko 1227/2021 Ebazpenaren bidez, berriz ireki eta luzatu zen 2021eko aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko epea, 2021eko urriaren 4ko 9:00etatik azaroaren 4ko 14:00etara bitartekoa, behin arazo teknikoak konponduta.

Hala ere, 2021eko kontratazioko zerrendetan izena emateko eskaera egiteko aplikazioa berriro ireki ondoren, ikusita datu pertsonalen segurtasuna bermatzea ezinezko egiten duten arazo teknikoak berriro atzeman direla, bertan behera utzi da zerrendetan izena emateko zerbitzua.

Arazo teknikoak konpondu ondoren, eta aplikazioa datu pertsonalen kudeaketaren segurtasuna bermatu ahal izateko moduan zuzendu ondoren, 2021eko aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko epea berriro ireki da.

Era berean, urriaren 4ko 9:00etatik 9:45era egindako eskaera guztiak baliogabetzea erabaki da, tarte horretan ezin izan delako datuen osotasuna bermatu.

Beraz, urriaren 4an, 09:00etatik 09:45era bitartean, 2021eko kontratazioko zerrendetan izena emateko eskaera egin duten guztiek, beste eskaera bat egin beharko dute izena emateko epearen barruan, 2021eko kontratazioko zerrendetan parte hartu nahi badute.

Jakinarazpen pertsonala bidaliko zaie eragindako guztiei.

Osakidetzako zuzendari nagusiak du Ebazpen hau emateko eskumena, Osakidetzaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren arabera eta uztailaren 21eko Erabakiaren azken xedapenetatik hirugarrenaren arabera. Izan ere, xedapen horrek ahalmena ematen dio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari Erabakia garatzeko behar diren ebazpenak edo instrukzioak emateko.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- 2021eko aldi baterako kontratazioko zerrenden aplikazioan 2021eko urriaren 4an 9:00etatik 09:45era bitartean egin ziren inskripzio-eskaera guztiak baliogabetzea.

Jakinarazpen pertsonala bidaliko zaie eragindako guztiei. Bertan adieraziko zaie izena emateko epearen barruan beste eskaera bat egin behar dutela, 2021eko kontratazioko zerrendetan parte hartu nahi badute.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 4a

 **Osakidetza**
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL

Sin: María Rosa Pérez Esquerdo
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA